

# TELEBISTA OPERATZAILEENTZAKO TARIFAK

## SARRERA

Euskal Kulturgileen Kidego EKKI Elkartea (EKKI) jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketa kolektiborako erakundea da. Apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren arabera (aurrerantzean JIL) eta Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako akordioa onartzen duen ekainaren 28ko 141/2011 Dekretuarekin bat eratu da. Aipatutako Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordio hori Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzeari buruzkoa da.

Kultura Ondarearen zuzendariaren 2014ko urriaren 20ko Ebazpenaren kariz, baimena jaso du Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik edo nagusiki jardun dezan Jabetza Intelektualaren Legean aitortzen diren eskubideak kudeatzeko erakunde gisa.

Bere estatutuei jarraiki, egile eta jabetza intelektualaren eskubideen beste ezein titularren ustiapen-eskubideak eta ondare izaerako eskubideak kudeatzea du helburu. Beste batzuen artean, hurreneko eskubideak kudeatzen ditu:

- a) Erreproduzio, banaketa eta komunikazio publikoari dagozkion eskubide eksklusiboak, literatura, antzerki, musika, ikusentzunezko, eta izaera grafiko ala plastikoko obren gaineko egiletza eta beste eskubideei ala eskubie lotuei (artista, interpretatzaile eta produktoreen eskubideak, JIL-ko II. Liburuan azaltzen direnak) dagokienez.
- b) Eskubidedun hauei dagozkien ordainketa hutseko eskubideak, bereziki JIL-ko 20, 90, 108, 116 eta 122 artikuluetan zehazten diren heinean, aurretik aipatutako obren erreproduzio eta komunikazio publikoei, fonogramen erreproduzio eta komunikazio publikoari eta ikusentzunezko produkzioen erreproduzio eta komunikazio publikoari dagokienez.

EKKI izanik, EAEn zein Espainiako lurraldean, egile eskubideak eta eskubide lotuak era bateratuan kudeatzen dituen erakundea, Telebista Operatzaile diren erabiltzaileentzako tarifa bereziak osatzera darama, barne egonik erabiltzaile mota honek ustiatu ditzakeen eta EKKIk kudeatzen dituen eskubide mota guztiak.

Tarifok, orain arte telebista operatzaileentzako ezarritako tarifa orokorren barne zeuden epigrafe bereziak ordezkatzeko dituzte. Orokorrean, erabiltzaile mota honi dagozkion inguruabar bereziak ere kontuan hartzen ditu, baita euskal telebista ekosistemaren errealitateari erantzun ere. Horrez gain, tarifok doitzen saiatzen dira Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeritzaren ECD/2547/2015 Aginduak ezarritako eta ondoren 2/2018 Errege dekretu bitartez JIL-n integraturiko printzipioetara, eta hark Kudeaketa Erakundearen tarifen determinazioarako ezartzen dituen baldintza eta irizpideei jarraiki.

Azkenik, telebista operatzaileentzako osatutako tarifok erabilera zehatzeko printzipioa dute gidagarri bakar. Egun eskuragarri diren teknologiek eskeinitako aukerei helduz, EKKIk bere erreperitorioaren erabileraren identifikazio osoa egingo du. Beraz, identifikazio sistemaren arabera, telebista operatzaile den erabiltzailearekiko justua, eta bazkidearentzako gardena den eredu ezarri nahi du EKKIk.

## AURREKARIAK

- I. EKKIREN ERREPERTORIOA
- II. ERABILERA ZEHATZAGATIKO TARIFA
  - a. EZAUGARRIAK
  - b. EGITURA
    - i. KALKULU-OINARRIA
    - ii. TARIFAREN TIPOA
    - iii. EMANDAKO ZERBITZUAREN KOSTUA
- III. MINIMOAK

## TARIFAK

- I. MUSIKAREN ERABILERA
  - a. MUSIKA LANEN ERABILERA
  - b. FONOGRAMEN BARNE DAUDEN INTERPRETAZIOEN ERABILERA
  - c. FONOGRAMEN ERABILERA
- II. IKUSENTZUNeko LANEN ERABILERA
  - a. IKUSENTZUNeko LANEN ERABILERA
  - b. IKUSENTZUNeko LANEN BARNE DAUDEN INTERPRETAZIOEN ERABILERA
  - c. IKUSENTZUNeko GRABAZIOEN ERABILERA
- III. OBRA GRAFIKOAREN ERABILERA
- IV. EMANDAKO ZERBITZUAREN KOSTUA

## AURREKARIAK

## I. EKKIREN ERREPERTORIOA

Kontuan izanik telebista operatzaileek ustia ditzaketen babestutako obra motak eta eskubideei atxikiak diren bestelako prestazioak, EKKIren erreperitorioa osatuko lukete:

- a) Musika lanek, barne izanik letra duten zein ez duten konposizioak; lan dramatiko, dramatiko-liriko, liriko, koreografiko eta pantomimikoek; adierazpen folklorikoak, bertsoak eta deklamaturako ala irakurritako literatura lanak edozein modura moldatuak ala interpretatuak, ikusentzuneko lanetan sinkronizatuak leudekeenak barne; baita halako lanekiko eskubide lotuak, fonogramei eta hauek barne dituzten interpretazioei dagokienez.
- b) Ikusentzuneko lanak, barne egonik edozein luzerako filmak, telesailak, dokumentalak, telebistarako filmak, komedia programak eta sketch-ak, eta gaurkotasanari buruzko programa gidoituak; hauetan, EKKIk kudeatzen du zuzendari-errealizatzaile, gidoilari, argudiolari eta dialogo idazle, eta ikusentzuneko lanetarako bereziki osatutako musikaren egileei dagozkien eskubideak. Barne daude ere lan hauekiko eskubide lotuak, izan barne dituzten interpretazioenak (musika orijinalari zein antzezpen, ahots bikoizketa ala bestelako interpretazioari lotuak izan); ikusentzunezko lanen barne dauden fonogramen ekoizleenak (musika sinkronizatuari zein orijinalari dagozkiola); eta ikusentzuneko grabazioen ekoizleenak.
- c) Obra grafikoak, plastikoak, argazkilaritzakoak eta bestelako lan bisualak, b) epigrafean aurkeztu diren obra motetan erreproduzituak direnean eta hauen komunikazio publikoa egiten denean.

Tarifa hauen helburua erabilera zehatzaren ezarketa izanik, beharrezkoa dugu argitzea aurreko obra mota guztien gain JLI-an ageri diren eskubide guztiak kudeatuko direla, beti ere obrok EKKIren erreperitorioaren parte badira, kudeaketa kontratu bitartezko zuzeneko mandatuaren bitartez izan zein hirugarren erakunde, agente ala eskubidedun batek mandatu izanagatik haren kudeaketa, dagokion lurraldean.

## II. ERABILERA ZEHATZAGATIKO TARIFA

### a. EZAUGARRIAK

Aintzat hartu beharra dago jabetza intelektualaren izaera alderik alde bilakatu dela azken hamarkadan. Europar legegileak argi utzi du erabilera zehatza dela etorkizunean jarraitu beharreko eredua: hauxe izango da kudeatzaile bakoitzak bere mandatugileei dagokien kopuruak ordaindu ahalko dizkionaren bermea. Horretarako, 2014/26/UE eta 2017/1564 zuzentarauen bitartez neurriak ezarri ditu kudeatzaileen arteko konpetentzia areagotu eta agente berrien merkaturatzea errazteko. Kudeaketa forma hau bermatuko duten teknologiak garatu beharko dira eta hauen ezarpena sustatu, gardentasuna indartuaz horrela.

Hortaz, Telebista operatzaileentzako osatutako tarifa hauek, aipatu eskubide guztien kudeaketa elkartua eskaintzeaz gain, erabilera zehatzaren monitorizazioan oinarrituko da bereziki, EKKI ulertzen baitu erabiltzaile mota honi ez legokiokela

beste tarifa motarik; salbuespen urriak egonik EKKI jaso beharreko minimoei dagokionez, bestalde erreperitorioaren erabilera jarraituaren ondorio direnak.

b. EGITURA

i. KALKULU-OINARRIA

Telebistak dituen berezitasunak kontuan hartuaz, beharrezkoa da kalkulu-oinarria ahalik eta doitasun handienaz zehaztea. Kudeaketa erakundeek jarraitu beharreko printzipioak haien tarifen zehaztapena egitean JIL-ean sartu ziren 2/2018 legeak egindako aldaketaren bitartez. Haien barne daude erreperitorioaren erabilera zehatza, horren maiztasuna eta garrantzia erabiltzaile baten ekimenaren barne, erreperitorioaren zabalera, eta erreperitorioaren ustiapenarekin zuzeneko zerikusia duten diru-sarrerak identifikatzea.

Printzipio hauek ECD/2547/2015 Agindu ministerialean zabalki azalduak dira. Iraungitako Agindu honen 14.2.b) artikuluan zehazten denez, erreperitorioaren ustiapenarekin zuzeneko zerikusia duten diru-sarrerak identifikatzearen irizpidea kalkulu-oinarriari aplikatu beharko zaiola. Zentzu berean, 6.2 artikulua araberak, garrantziaren irizpidea erabiliko beharko da diru-sarrera guztien artetik erreperitorioaren ustiapenarekin zein ehuneko zerikusia duen zehazteko.

Garrantziaren irizpidea era egokian aplikatzeko, egozgarriak diren eta ez diren gastuak identifikatzea beharrezkoa da. Egozgarriak izango dira, era adierazgarrian eta inoiz ez murriztailean:

1. Abonatu ala bazkideen kuotetatik datozenak
2. Esplotazioaren defizita betetzeko egiten diren kapital-ekarpenak
3. Ekintza enpresariala aurrera eramateko diru-laguntzak
4. Publizitateko datozen irabaziak, izan
  - a. Diruz ordainduak
    - i. Patrozinadoreek ordaindutako kopuruak programak produzitu ala ko-produzitzeko
    - b. Diruz ordainduak ez badira, publizitate espazio bati dagozkion irabaziak kalkulatu dira analogia bitartez, iragarleei antzeko espazio baterako kobratuko litzaiekeen tarifa aplikatuz irabazi bezala
5. Erabiltzaileak kudeatu arren beste sozietate batzuen kontuetan agertzen direnak

Egozgarriak ez diren irabaziak:

1. Finantza-irabaziak eta programa propioen salmenta ala lagapenetik eratorritakoak
2. Telebista operatzaileek ohikotan egin behar ez dituzten gastuak estaltzeko diru laguntzak, barne egonik:
  - Aldizkako ala puntualak diren gastuak;
  - Ekintza enpresarialaren jardunerako beharrezkoak ez diren eta diru-sarreretan inpakturik ez duten gastuak;
  - Operatzaile publikoek horixe izan hutsagatik dauzkaten gastuak

3. Kudeaketa erakundeei eskubideen ustiapenagatik ordaintzeko jasotako diru-laguntzak.
4. Jabetza publiko zein pribatukoak izan, operatzaileek efektiboki jaso ez diren diru-sarrerak
5. Ekintza enpresarialetik at beste jarduera batzuk garatzeko diru-laguntzak eta telebistaren emisio eta hedapenarekin zerikusirik ez duten diru irabaziak

Titulartasun publikoa duten telebista operatzaileen kasuan, egozgarriak diren diru-laguntzen haztapena egingo da. Haztapena ikuslego datu agregatuaren neurtzean oinarrituko da, zeintzuetatik ikuslegoaren batz bestekoa aterako den; operatzaileak erakunde autonomikoak izatekotan, batz besteko ikuslegoak kalkulatzeko kontuan hartuko dira soilik berauen jatorrizko Erkidegoa ala hauen eragin eremua (hizkuntza erabilera, kideetasun kultural ala prestasun geografikoak mugatua). Aldi berean, ikuslego potentzial bat ezarriko da, operatzaile desberdinen arteko ikuslegoaren banaketa potentzialean oinarritua, telebista operatzaile pribatuekiko baldintza konpetitibo parekoak balituzte; banaketa potentziala lurralde printzipioaren arabera ere eraenduko da, erakunde autonomikoen kasuan. Ehuneko bien arteko erlazioak zifra bereizgarri bat opatuko du, titulartasun publikodun telebista operatzaileek jasotzen dituzten diru-laguntzen zuzentzaile erabiliko dena. Ikuslego datu agregatuak EKKIk eta operatzaileek haien kontratuzko erlazioaren hasieran adostuko dituzten estudioetatik aterako dira, eta urtero ala alderdiek adosten duten eperu eguneratuko dira.

Behin egozgarriak diren irabazi gordinak zehazturik (aurrerantzean IGE), horiek zatitu egingo dira telebista operatzaileak kudeatzen dituen telebista emisora ala kanal desberdinen artean. Horretarako, kontuan hartuko dira entzuleria datuak, proportzionalki zehatuaz emisora ala kanal bakoitzari erakundeko emisora ala kanal guztiek guztira daukaten entzulerian oinarrituta ehuneko bat, zuzentzaile bezala aplikatuko zaiona irabazi gordin egozgarrien zifrari. Aurrekoa ez da aplikatuko baldin eta emisora ala kanal bakoitzeko IGE zehazteko formarik badu.

Behin IGE-ak ezarriak, ordu tarte bakoitzeko IGE zehaztuko dira. Ordu tarteak programazioaren bitartekak dira, bakoitzaren ikuslego motak, haien gustuek eta tarte bakoitzaren ikuslego datuen arabera banatuak. Edukien programazioak eta, ondorioz, errepertorioaren ustiapenagatik jasotako diru-sarrerak, zuzeneko erlazioa dute ordu tarteekin. Hurrenak ezartzen dira:

<b>Ordu tarteak</b>	<b>Hasiera</b>	<b>Amaiera</b>
Goizaldea	02:30	07:00
Goiza	07:00	14:00
Bazkalondoa	14:00	17:00
Arratsaldea	17:00	20:30
Prime Time	20:30	24:00
Late Night	00:00	02:30

Hala, IGE-ak ordu-tartetan banatuko dira, tarte bakoitzak azkeneko IGE-etan duen garrantzia kontuan hartuaz. Horrela zehaztuko dira ordu tarte bakoitzaren IGE-ak,

hauek izanik erreferentziazko oinarria EKKIren erreperitorioaren erabilera gatik sortzapenaren zenbatekoa kalkulatzeko orduan ordu tarte bakoitzerako.

Aintzakotzat hartu ahalko dira erabiltzailearen ekintzan erreperitorioaren ustiapenak duen garrantziaren kalkuluari eginda dakizkioken doikuntzak, tarifa hauek kanpo geratzen diren kontsiderazioen arabera. Kontsiderazio hauek erabiltzaileek argudiatu ahalko dituzte eta kasuz kasu aztertuko dira. Erabilera zehatzaren datu frogagarrietan oinarritu beharko dira, baita emisora ala kanal bakoitzaren izaera komunikatiboaren arabera motibatuta.

## ii. TARIFAREN TIPOA

EKKIk JIL-ak ezarritako eskubide guztiak kudeatzen dituzenez, argitasun eta soiltasun printzipioei jarraiki, epigrafeka elkartzen dira eskubide mota ezberdinak obra motaren arabera; kasuren baten, tipo bereberan elkartu dira (adb. musika lanen artista interpretatzaileen eta fonograma ekoizleen eskubideak, zeintzuei buruzko tipoetan elkartzen diren eskubidedun hauek dituzten eskubide esklusibo zein ordainketa hutsekoak).

Edozein kasutan, tipoa aplikatzeko orduan, erabilera zehatzagatik zuzentzailea aplikatuko zaio, lanen erabileraren monitorizazioa posible bada. Hortaz, tipoa aurreko atalean ezarritako kalkulua oinarriari aplikatu baino lehen, haztatu egingo da monitorizazio txostenak erabiliaz. Ordu tarte bakoitzean, EKKIren erreperitorioaren erabilera denboraren proportzioa kalkulatu da erreperitorio babestuen erabilera totalaren gain, eta ehuneko baten adieraziko da prestazio ala eskubide mota bakoitzeko. Ehuneko hau izango da tipoari zuzentzaile bezala aplikatuko zaiona.

## iii. EMANDAKO ZERBITZUAREN KOSTUA

ECD/2547/2015 agindu iraungiak zehaztu bezala, EKKIk tarifak aurkezten ditu eskubideen erabileraren prezioa eta emandako zerbitzuagatik prezioa banatuaz. Kostu honek EKKIk erabilera zehatzaren kontrolerako medioak ordaintzeko jasan dituen kostuak isladatzen ditu, zeintzuen bitartez EKKIk erabiltzaileari bermatu ahal izan dizkion erabilera zehatzari buruzko informazioak, horrek duen giza-kostearekin batera.

EMK-k kostu hauek batu eta zuzenki inputatzen ditu mota bereko erabiltzaile guztien artean. Bere justifikazioa aurki daiteke tarifa hauen memorian.

## III. MINIMOAK

Testu honetan ezarritako tarifa minimoak hurrengo ezohiko kasuetan aplikatuko dira:

- Zailtasun teknikoak direla eta, ezinezkoa denean erreperitorio motaren baten erabilera zehatza determinatzea, erreperitorio mota horri dagokion tarifa minimoa aplikatuko da. Kasu honetan, EMK ez da aplikatuko.
- Erreperitorio mota bakoitzaren erabilera zehatza determinaturik,

hauengatik baten ustiapenagatik zor den kopurua tarifa minimoaren zenbatekoa baino txikiagoa denean.

Tarifa hauek telebista operatzaile bakoitzak emititzen duen kanal bakoitzagatik aplikatuko dira, emisioa lineala denean; eta eskura jartze zerbitzu bakoitzagatik, operatzaileak bat baino gehiago balu. Tarifa minimoei ez zaizkie aplikatuko hobaririk, legean berariaz zehazten den kasuetan ezik.

Halaber, errepertorio mota bakoitzari dagokion tarifa minimoa ez da erabiliko erabiltzaileak frogatzerik badu errepertorio mota horren erabilera ezta ustiapenik egon ez dela fakturazio zehatz bakoitzari dagokion epealdian.

## TARIFAK

### I. MUSIKAREN ERABILERA



## a. MUSIKA LANEN ERABILERA

### Tarifaren objektua

Tarifa honen bitartez jasotako lizentziak telebista operatzaileei baimena opatzen die hurrengo ekintzetarako, musika lanei dagokienez:

- a) Erreprodukzioari dagokionez:
  - i) Lanen grabazioa, operatzaileak berak ala hirugarrenek operatzailearen ekimenez, era mugagabean tarifa indarrean dagoen bitartean.
  - ii) Grabazio hauen kopiak egitea barne erabilerarako eta beste operatzaile batzuekin elkar banatzeko, beti ere horien emisiorako bada. Emititu gabeko grabazioak banatzekotan, EKKIri jakinarazi beharko zaio.
  - iii) Hurrengo epigrafeetan baimentzen diren zabalkunde formetarako, errepertorioko lanen erreprodukzioa soinu zein ikusentzuneke grabazioen bitartez, legezko eran ekoitzi baina inoiz baimendu ez bada haien erreprodukzio ala komunikazio publikoa.
  - iv) Erabiltzailea kable, IPTV edo satelite operatzailea balitz, beste operatzaile baten kanalak ustiatzekotan, kanalaren beraren editorea izango da erreprodukzio eskubidea jasaten duena.
  - v) Operatzaileak era legezkoan emititutako programazioaren artxiboen grabazioa sare digitaletan, eskura jartzeko.
- b) Komunikazio publikoari dagokionez:
  - i) Telebista bidezko zein haririk gabeko hedatze bitartezko emisioa, izan hau zuzenean zein a) epigrafean baimendutako grabaketa formen bitartez, emisioaren edo hedapenaren arduraduna erabiltzailea bera bada
  - ii) Beste operatzaile batzuek era legezkoan emititutako programen emankizuna.
  - iii) Exekuzio publikoen antolaketa, haien emisio oso eta aldaketa gabekoa helburu izanik, publizitaterako eteteak kontuan hartu gabe, zuzenean ala hogeita hamar (30) eguneko epean, erabiltzailearen instalazioetan eginak. Baimen honek ez ditu barne hartzen sarreragatiko ordainketa eskatzen direneko exekuzioak, ezta hirugarrenek ala hirugarrenen alde antolatuak; dagokien baimena lortu beharko dute.
  - iv) Operatzailearen emisioaren transmisio oso eta aldaketa gabekoa hari, kable, zuntz optiko ala antzekoen bitartez, harpidetzaren truk izan zein ez. Baimen honek barne hartzen du emisioaren transmisio oso eta aldaketa gabekoa hedapen digitalerako sistemen bitartez (DAB, Simulcasting eta antzekoak).
  - v) Operatzaileak era legezkoan emititutako lanen ala programen gehitzea satelite batera bideratutako programa batera, zuzeneko atzipena uzten duena.
  - vi) Musika lanak gehitzea satelite batera bideratutako programa batera, zuzeneko injekzio zein puntuz puntuko sistemen bitartez, hirugarren

operatzaile batek atzitu ditzan, beti ere erabiltzailearen emisio oso eta aldaketa gabearen emankizunerako, eta hirugarren horrek beharrezko baimena lortu badu emankizun horretarako.

vii) Telebista bitartez emititutako programen ala hauen zatien eskura jartzea, beti ere operatzaileak era legezkoan emititu ala hedatu baditu, hartzaileak zuzenean atzitu ahal ditzan.

c) Publizitatean, ikusentzuneko lanetan ala bestelako formatuetan sinkronizatutako musika lanen komunikazio publikoa tarifa honen barne sartzen dira, beti ere jatorrizko eskubidedunak dagokion baimena opatu badio lehenengo finkapenari.

## Ordainsaria

a) Emisio lineala

Emisio linealarekin lotutako IGE-i, hau da, a) epigrafeko i), ii), iii) eta iv) puntuekin eta b) epigrafeko i), ii), iii), i), v) eta vi) puntuekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena erabili den babespeko erreperitorio guztitik EKKIren erreperitorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = \%6,4 \times \text{ue}\%$$

b) Eskura jartzea

Eskura jartzearekin lotutako IGE-i, hau da, a) epigrafeko v) puntuarekin eta b) epigrafeko vii) puntuarekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena eskura jarritako edukien ikuste denbora totaletik EKKIren erreperitorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = \%6,4 \times \text{ue}\%$$

c) Hobariak eta deskontuak

%5eko deskontua banku helbideratzeagatik.

%5eko hobaria autolikidazioa egiteagatik

d) Minimoak

Edozein kasutan, telebista operatzaileek eskura izango dituzte hurrengo tarifa minimoak:

- Emisio lineala: urteroko minimoa 1.500€
- Eskura jartzea (emititutako programen atzipena): urteroko minimoa 900€
- Eskura jartzea (ikusentzuneko lanen atzipena): urteroko minimoa 900€
  - b. FONOGRAMEN ETA HAUEN BARNE DAUDEN INTERPRETAZIOEN ERABILERA

## Tarifaren objektua

EKKI da Espainiako alor juridikoan JIL-an aurreikusten diren eskubide guztiak kudeatzen dituen erakunde bakarra. Horrexegatik, bateraturik aurkezten dira hemen telebista operatzaileek egin ditzaketen erabilerak, fonogramen eta barne dituzten interpretazioen ustiapenar dagokionez: JIL 108.4 eta 116.2 artikuluetan ageri den fonogramen erreprodukzio eta komunikazio publikoagatiko ordaintze hutseko eskubidea; eskubide berberaren alderdi eskusiboa, JIL 115. artikuluan ezartzen dena; JIL 106. Artikuluan ezartzen den artistek haien interpretazioen lehen finkapenaren gain duten eskubidea; JIL 107. artikuluan zehazten den interpretazio hauen gaineko erreprodukzio eskubidea; JIL 108.3 eta 116.1 artikuluetako eskura jartze eskubidea, beti ere hau erabiltzailearen ohiko ekintzaren barne badago; eta JIL 108.5 artikuluan zehazten den ikusentzunezko grabaketan barne dauden interpretazioen komunikazio publikoagatiko bidezko ordainketa.

Tarifa honen bitartez jasotako lizentziak telebista operatzaileei baimena opatzen die hurrengo ekintzetarako, fonograma eta musika interpretazioei dagokienez:

- a) Interpretazioen lehen finkapenari dagokionez:
  - i) Telebista operatzaileak berak antolatutako exekuzio publikoetan, EKKIko bazkide diren artista interpretatzaileen sesioen finkapena, beti ere haren emisio oso eta aldaketa gabekoa helburu izanik, publizitaterako eteteak kontuan hartu gabe, zuzenean ala hogeita hamar (30) eguneko epean, erabiltzailearen instalazioetan eginak. Baimen honek ez ditu barne hartzen sarreragatiko ordainketa eskatzen direneko exekuzioak, ezta hirugarrenek ala hirugarrenen alde antolatuak; dagokien baimena lortu beharko dute. Era berean, baimen honek ez ditu barne hartzen publizitate lanen barne sinkronizatuta dauden interpretazio eta fonogrametara; ezta finkapen terminoak izan ditzakeen beste adiera ezta erabileretara, epigrafe honetan emandakotik kanpo.
- b) Erreprodukzioari dagokionez:
  - i) Fonogramen grabazioa operatzaileak haren hedatzea egin ahal dezan, izan emisio bitartez zein beste edonolako hedapen bitartez, grabazioei mugarik jarri gabe.
  - ii) Fonograma hauen kopiak egitea barne erabilerarako zein beste operatzaileekin banatzeko, beti ere horren helburua emisioa bada.
  - iii) Hurrengo epigrafeetan baimentzen diren zabalkunde formetarako, errepertorioko fonograma eta barne dituzten interpretazioen erreprodukzioa, legezko eran ekoitzi baina inoiz baimendu ez bada haien erreprodukzio ala komunikazio publikoa.
  - iv) Telebista operatzaileak berak antolatutako exekuzio publikoetan, EKKIko bazkide diren artista interpretatzaileen sesioen finkapenen erreprodukzioa, beti ere haren emisio oso eta aldaketa gabekoa helburu izanik, publizitaterako eteteak kontuan hartu gabe, zuzenean ala hogeita hamar (30) eguneko epean, erabiltzailearen instalazioetan eginak. Baimen honek ez ditu barne hartzen

sarreragatiko ordainketa eskatzen direneko exekuzioak, ezta hirugarrenek ala hirugarrenen alde antolatua; dagokien baimena lortu beharko dute.

- v) Operatzaileak berak era legezkoan emititutako programen grabazioa ala igoera sare digitaletara eskura jartzeko, hauek EKKIren erreperatorioko fonograma ala interpretazioak dauzkatenean barne.
- c) Komunikazio publikoari dagokionez:
- i) Telebista bitartez zein haririk gabe emititzea, zuzenean zein tarifa honetan aurreikusitakoaren arabera baimendutako grabaketen bitartez, operatzailea denean hedapena egiten duena.
  - ii) Beste operatzaile batek era legezkoan emititutako programen emisioa ala hedapena.
  - iii) Telebista operatzaileak berak antolatutako exekuzio publikoetan, EKKIko bazkide diren artista interpretatzaileen sesioen finkapenen komunikazio publikoa, beti ere haren emisio oso eta aldaketa gabekoa helburu izanik, publiziterako eteteak kontuan hartu gabe, zuzenean ala hogeita hamar (30) eguneko epean, erabiltzailearen instalazioetan eginak. Baimen honek ez ditu barne hartzen sarreragatiko ordainketa eskatzen direneko exekuzioak, ezta hirugarrenek ala hirugarrenen alde antolatua; dagokien baimena lortu beharko dute.
  - iv) Operatzailearen emisioaren transmisio oso eta aldaketa gabekoa hari, kable, zuntz optiko ala antzekoen bitartez, harpidetzaren truk izan zein ez. Baimen honek barne hartzen du emisioaren transmisio oso eta aldaketa gabekoa hedapen digitalerako sistemen bitartez (DAB, Simulcasting eta antzekoak).
  - v) Operatzaileak era legezkoan emititutako lanen ala programen gehitzea satelite batera bideratutako programa batera, zuzeneko atzipena uzten duena.
  - vi) Telebista bitartez emititutako programen ala hauen zatien eskura jartzea, beti ere operatzaileak era legezkoan emititu ala hedatu baditu, hartzzaileak zuzenean atzitu ahal ditzan.
- d) Publizitate lan, ikusentzunekeo lan eta bestelako programetan sinkronizatutako fonograma eta interpretazioen komunikazio publikoa ere baimentzen du atal honek, beti ere jatorrizko baimena era legezkoan lortu bada sinkronizaziorako.

Argitzeko asmoz, tarifa honek ez ditu barne hartzen:

- Musikaz at dauden interpretazioei dagokien bidezko ordainketa. Argitzearren, atal honetako aurreko epigrafeetan aipatu diren interpretazioak izango dira soilik izaera musikala zein literarioa dutenak (era adierazgarrian, instrumentu bat interpretatzea, poesia musikatua ala deklamazioa). Ikusentzunekeo lanetan egindako antzezpenak eta ahots antzezpenak eta bikoizketak diren interpretazioak, JIL 106. 107. eta 108. artikuluetan ezarriak, epigrafe propioa izango dute.
- Ikusentzunekeo grabazioen ekoizleentzako JIL 108.5 artikulua aurreikusten duen bidezko ordainketak epigrafe propioa izango du.

## Ordainsaria

### a) Emisio lineala

Emisio linealarekin lotutako IGE-i, hau da, a) epigrafeko i) puntuarekin; b) epigrafeko i), ii), iii) eta iv) puntuarekin; eta c) epigrafeko i), ii), iii), iv), eta v) puntuarekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena erabili den babespeko erreperitorio guztitik EKKIren erreperitorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = \%10 \times \text{ue}\%$$

### b) Eskura jartzea

Eskura jartzearekin lotutako IGE-i, hau da, a) epigrafeko i) puntuarekin; b) epigrafeko v) puntuarekin; eta c) epigrafeko vi) puntuarekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena eskura jarritako edukien ikuste denbora totaletik EKKIren erreperitorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = \%10 \times \text{ue}\%$$

### c) Hobariak eta deskontuak

%5eko deskontua banku helbideratzeagatik.

%5eko hobaria autolikidazioa egiteagatik

### d) Minimoak

Edozein kasutan, telebista operatzaileek eskura izango dituzte hurrengo tarifa minimoak:

- Emisio lineala: urteroko minimoa 900€
- Eskura jartzea (emititutako programen atzipena): urteroko minimoa 900€
- Eskura jartzea (ikusentzuneke lanen atzipena): urteroko minimoa 900€

- II. IKUSENTZUNNEKO LANEN ERABILERA
  - a. IKUSENTZUNNEKO LANEN ERABILERA

## Tarifaren objektua

Tarifa honen bitartez jasotako lizentziak telebista operatzaileei baimena opatzen die hurrengo ekintzetarako, ikusentzuneko lanei dagokienez:

a) Erreprodukzioari dagokionez:

- i) Lanen grabazioa, operatzaileak berak ala hirugarrenek operatzailearen ekimenez, era mugagabeen tarifa indarrean dagoen bitartean.
- ii) Grabazio hauen kopiak egitea barne erabilerarako eta beste operatzaile batzuekin elkar banatzeko, beti ere horien emisiorako bada. Emititu gabeko grabazioak banatzekotan, EKKIri jakinarazi beharko zaio.
- iii) Hurrengo epigrafeetan baimentzen diren zabalkunde formetarako, errepertorioko lanen erreprodukzioa soinu zein ikusentzuneko grabazioen bitartez, legezko eran ekoitzi baina inoiz baimendu ez bada haien erreprodukzio ala komunikazio publikoa.
- iv) Erabiltzailea kable, IPTV edo satelite operatzailea balitz, beste operatzaile baten kanalak ustiatzekotan, kanalaren beraren editorea izango da erreprodukzio eskubidea jasaten duena.
- v) Operatzaileak era legezkoan emititutako programazioaren artxiboen grabazioa sare digitaletan, eskura jartzeko.

b) Komunikazio publikoari dagokionez:

- i) Telebista bidezko zein haririk gabeko hedatze bitartezko emisioa, izan hau zuzenean zein a) epigrafean baimendutako grabaketa formen bitartez, emisioaren edo hedapenaren arduraduna erabiltzailea bera bada
- ii) Beste operatzaile batzuek era legezkoan emititutako programen emankizuna.
- iii) Exekuzio publikoen antolaketa, haien emisio oso eta aldaketa gabekoa helburu izanik, publizitaterako eteteak kontuan hartu gabe, zuzenean ala hogeita hamar (30) eguneko epean, erabiltzailearen instalazioetan eginak. Baimen honek ez ditu barne hartzen sarreragatiko ordainketa eskatzen diren exekuzioak, ezta hirugarrenek ala hirugarrenen alde antolatutak; dagokien baimena lortu beharko dute.
- iv) Operatzailearen emisioaren transmisio oso eta aldaketa gabekoa hari, kable, zuntz optiko ala antzekoen bitartez, harpidetzaren truk izan zein ez. Baimen honek barne hartzen du emisioaren transmisio oso eta aldaketa gabekoa hedapen digitalerako sistemen bitartez (DAB, Simulcasting eta antzekoak).
- v) Operatzaileak era legezkoan emititutako lanen ala programen gehitzea satelite batera bideratutako programa batera, zuzeneko atzipena uzten duena.
- vi) Ikusentzuneko lanak gehitzea satelite batera bideratutako programa batera, zuzeneko injekzio zein puntuz puntuko sistemen bitartez, hirugarren operatzaile batek atzitu ditzan, beti ere erabiltzailearen emisio oso eta aldaketa gabearen emankizunerako, eta hirugarren horrek beharrezko baimena lortu badu emankizun horretarako.
- vii) Telebista bitartez emititutako programen ala hauen zatien eskura

jartzea, beti ere operatzaileak era legezkoan emititu ala hedatu baditu, hartzaileak zuzenean atzitu ahal ditzan.

## Ordainsaria

### a) Emisio lineala

Emisio linealarekin lotutako IGE-i, hau da, a) epigrafeko i), ii), iii) eta iv) puntuekin eta b) epigrafeko i), ii), iii), i), v) eta vi) puntuekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena erabili den babespeko erreperitorio guztitik EKKIren erreperitorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = 9 \times \text{ue}\%$$

Tipo honen bitartez ebatzitako sortzapenak horrela banatuko dira:

ZUZENDARITZA-ERREALIZAZIOA MUSIKA ORIGINALA	GIDOIA- ARGUMENTUA	
%35	%35	%30
%3,15	%3,15	%2,7

### b) Eskura jartzea

Eskura jartzearekin lotutako IGE-i, hau da, a) epigrafeko v) puntuarekin eta b) epigrafeko vii) puntuarekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena eskura jarritako edukien ikuste denbora totaletik EKKIren erreperitorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = 9 \times \text{ue}\%$$

Tipo honen bitartez ebatzitako sortzapenak horrela banatuko dira:

ZUZENDARITZA-ERREALIZAZIOA MUSIKA ORIGINALA	GIDOIA- ARGUMENTUA	
%35	%35	%30
%3,15	%3,15	%2,7

### c) Hobariak eta deskontuak

%5eko deskontua banku helbideratzeagatik.

%5eko hobaria autolikidazioa egiteagatik

### d) Minimoak

Edozein kasutan, telebista operatzaileek eskura izango dituzte hurrengo tarifa minimoak:

- Emisio lineala: urteroko minimoa 1.200€

- Eskura jartzea (emititutako programen atzipena): urteroko minimoa 900€
- Eskura jartzea (ikusentzuneko lanen atzipena): urteroko minimoa 1.200€

b. IKUSENTZUNEKO LANEN BARNE DAUDEN INTERPRETAZIOEN  
ERABILERA

Tarifa honen objektu dira ikusentzuneko medioari dagozkion antzezen eta prestazio artistikoak, baita ikusentzuneko lanetan barne dauden interpretazioak, bikoizketak, dantzak ala eszena zuzendaritza. Horrela likidatzen dira JIL 108.3 eta



108.5 artikuluek zehaztutako derrigorrezko kudeaketa kolektiboko eskubideengatiko sortzapenak, beti ere EKKIren erreperitorioan badaude.

Telebista operatzaileei dagokienez, hauek dira sortzapenak sortzen dituzten aipatu prestazio artistikoen erabilerak:

- a) Komunikazio publikoari dagokienez:
  - i) Telebista bitartez zein haririk gabe emititzea, zuzenean zein tarifa honetan aurreikusitakoaren araberrako baimendutako grabaketen bitartez, operatzailea denean hedapena egiten duena.
  - ii) Beste operatzaile batek era legezkoan emititutako programen emisioa ala hedapena.
  - iii) Operatzailearen emisioaren transmisio oso eta aldaketa gabekoa hari, kable, zuntz optiko ala antzekoen bitartez, harpidetzaren truk izan zein ez. Baimen honek barne hartzen du emisioaren transmisio oso eta aldaketa gabekoa hedapen digitalerako sistemen bitartez (DAB, Simulcasting eta antzekoak).
  - iv) Operatzaileak era legezkoan emititutako lanen ala programen gehitzea satelite batera bideratutako programa batera, zuzeneko atzipena uzten duena.
  - v) Telebista bitartez emititutako programen ala hauen zatien eskura jartzea, beti ere operatzaileak era legezkoan emititu ala hedatu baditu, hartzaileak zuzenean atzitu ahal ditzan.

## **Ordainsaria**

- a) Emisio lineala

Emisio linealarekin lotutako IGE-i, hau da, a) epigrafeko i), ii), iii) eta iv) puntuekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena erabili den babespeko erreperitorio guztitik EKKIren erreperitorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = \%1,2 \times \text{ue}\%$$

- b) Eskura jartzea

Eskura jartzearekin lotutako IGE-i, hau da, a) epigrafeko v) puntuarekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena eskura jarritako edukien ikuste denbora totaletik EKKIren erreperitorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = \%1,2 \times \text{ue}\%$$

- c) Hobariak eta deskontuak

- d) Minimoak

Edozein kasutan, telebista operatzaileek eskura izango dituzte hurrengo tarifa

minimoak:

- Emisio lineala: urteroko minimoa 400€
- Eskura jartzea (emititutako programen atzipena): urteroko minimoa 200€
- Eskura jartzea (ikusentzuneke lanen atzipena): urteroko minimoa 400€

#### c. IKUSENTZUNNEKO GRABAZIOEN ERABILERA

##### **Tarifaren objektua**

Tarifa honen objektu da JIL 122.2 artikuluan ikusentzuneke grabaketen ekoizleen alde aurreikusitako bidezko ordainketa, grabaketa hauen emisio linealagatik. Bereziki, JIL 20.2.f) artikuluan zehaztutako erabilera motari zaio aplikagarri, telebistaren arloan: jada argitaratutako lanen emankizuna, emisio arrunta, zuntz, hari ala satellite bidez dela, jatorrizko entitatea ez den operatzaile baten aldetik.

EKKIren erreperiotorioko lanei aplikatuko zaie soilik.

### **Ordainsaria**

a) Emisio lineala

Emisio linealarekin lotutako IGE-i, hau da, "Tarifaren objektua" aurreko epigrafean zehaztutako erabilerekin lotutako irabaziei hurrengo tipoa aplikatuko zaie, zeinetan ez% erabilera zehatzagatiko zuzentzailea den, ehunekotan adierazten duena erabili den babespeko erreperiotorio guztitik EKKIren erreperiotorioari dagokion proportzioa:

$$\text{Tipoa} = \%4 \times \text{ue}\%$$

b) Eskura jartzea

Ez da aplikagarria.

c) Hobariak eta deskontuak

%5eko deskontua banku helbideratzeagatik.

%5eko hobaria autolikidazioa egiteagatik

d) Minimoak

Edozein kasutan, telebista operatzaileek eskura izango dituzte hurrengo tarifa minimoak:

- Emisio lineala: urteroko minimoa 500€
- Eskura jartzea (emititutako programen atzipena): urteroko minimoa 250€
- Eskura jartzea (ikusentzuneko lanen atzipena): urteroko minimoa 250€

### **III. OBRA GRAFIKOAREN ERABILERA**

#### **Tarifaren xedea**

Tarifa honen bidez, erabiltzaileari baimena ematen zaio EKKIren erreperiotorioko obra grafiko, plastiko, fotografiko edo bestelako ikusizko obra hauek erabiltzeko:

a) Erreprodukzioari dagokionez:

i) Ikus-entzunezko produkzio batean lehen aldiz finkatzea edo erreproduzitzea, emisioaren bidez publikoki komunikatu ahal izateko.  
ii) Aurreko a) epigrafean aurreikusitako erabileretarako obrak erreproduzitzea edo grabatzea. Beste operadore batzuekin partekatzeko egindako erreprodukzioak sartzen dira, baldin eta osorik eta aldatu gabe emateko badira eta emankizunak dagokion baimena badu.

b) Komunikazio publikoari dagokionez:

i) Telebista bidez edo hari gabeko hedapen bidez emititzea, zuzenean edo aurreko a) epigrafean ezarritako grabazio moten bidez, baldin eta haririk gabeko emisioaren edo hedapenaren arduraduna erabiltzailea bera bada.  
ii) Beste operadore batzuek legez emandako programak ematea.  
iii) Operadorearen jaulkipen osoa osorik eta aldatu gabe transmititzea hari, kable, zuntz optiko edo antzekoen bidez, abonamendu bidez izan ala ez. Baimen horrek barne hartzen du erabiltzailearen emisioa osorik eta aldatu gabe transmititzea, hedapen digitaleko sistemen bidez (DAB, Simulcasting eta antzekoak).  
iv) Satelite bati zuzendutako programa bati ikus-entzunezko grabazioak gehitzea, zuzeneko injekzio bidez edo puntuz puntuko sistema bidez, erabiltzailea ez den beste operadore bat sar dadin, betiere erabiltzailearen emisioa osorik eta aldatu gabe igortzeko bada eta hirugarren horrek emankizun horretarako beharrezko baimena lortu badu.  
v) Telebistaz emandako programak edo horien zati bat eskura jartzea, betiere operadoreak beste edozein modutan igorri edo zabaldu baditu, hartzaileak zuzenean eskuratu ahal izan ditzan.

## **Kontraprestazioa**

a) Erreprodukzioa

- Tokiko telebistak: 30 €erreprodukzio bakoitzeko
- Kable edo satelite bidezko telebistak: 46 €erreprodukzio bakoitzeko
- Lurralde, nazio edo nazioarteko zabalkundea duten telebistak: 60 €erreprodukzio bakoitzeko

b) Komunikazio publikoa

- Tokiko telebistak: 80 €erreprodukzio bakoitzeko
- Kable edo satelite bidezko telebistak: 122 €erreprodukzio bakoitzeko
- Lurralde, nazio edo nazioarteko zabalkundea duten telebistak: 92 €erreprodukzio bakoitzeko

Emankizunak egiteko lizentzia berriak beharko dira:

- Lehen emanaldia: ezarritako tarifa, % 20ko deskontuarekin
- Bigarrena eta hurrengoak: % 40ko deskontuarekin ezarritako tarifa

c) Hobariak eta deskontuak

% 5eko deskontua banku-helbideratzeagatik.

% 5eko hobaria autolikidazioa egiteagatik

d) Gutxienekoak

Ez da aplikagarria

#### IV. EMANDAKO ZERBITZUAREN KOSTUA

El Precio por el Servicio Prestado será de 152,85€ por cada aplicación de la tarifa, incluyendo los costes de aplicación de todas las tarifas contenidas en este documento.